

BERRIGARA

7. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, ekainak 23




Uda heldu da!!

Kanpoko igerilekuak zabalik



LARRAÑAGA Autoeskola



Artekale, 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

MODA-MODAN



ETA GAINERA... KAMISETA BAT OPARI

1.950

PEZETAN

ZER DERITZOZU?

Zatuz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLEkin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak! Harritu zaitez ispiludun ereduak eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.

Eta denak kalitate optikodun kristalekin. Zer deritzozu? Jantzi itzazu MULTISOL batzuk. Moda-Modan egongo zara.

**ETA NAHI BADUZU,
GRADUATU
EGINGO DIZKIZUGU**



**"ZURE MULTISOLEKIN KAMISETA
BAT OPARITUKO DIZUGU"**

Zatuz eta proba itzazu MULTISOLak

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE - Ibaragaray, 16 • BERGARA
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Alejo Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Argitaratzailea:

Alejo Azkarate

Publizitatea:

Alejo Azkarate

Argitaratzailea:

Sorka Elorza

Besten zuzenketak:

Esteban Plazaola

Maripi Laskurain

Alejo Labaien

Erredakzio kontseilua:

Sorka Elorza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alejo Labaien

Omikiak:

Alfonso Rodriguez

Sorka Ortega & Jon Alvarez

Alejo Ugalde

Alejo Azkarate

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen taldea

Argitaratzailea:

1.000 ale.

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Argitaratzailea:

Argitaratzailearen Taldea

Z E B E R R I D A ?

JOKIN ETXANIZ

Empresas Unidas

enpresako pelotaria

- Zelan doaz negoziazioak?

- Zezeaga, Eugi, Galarza, Lasa, Balerdi, Soroa, Goñi, Balerdi, Soroa, Telletxea... eta beste pelotari askok Olga Ortigosa napa abokatuaren eskutan utzi ditugu gure kontratuen negoziazioak. Gu teoriarik Altzi eta Eskutaldearen arteko tirabirak ez gaituzte afektatzen, Empresas Unidasekin kontratua sinatuta daukagu eta. Dena den, gure abokatuak bi aldeekin izango da eta gehien komeni zaigun oferta proposatuko digu.

- Noiz hartuko duzue erabaki definitiboa?

- Hurrengo astean edo bi aste barru zer egiten dugun jakingo da baina, hala ere, guztiz ziurra ez



den arren, Zezeaga eta biok Eskutaldean jarraituko dugu ziurrenik.

Azken batean gauza asko izaten dituzu konputan: txikitatik hemen jokatu izana, jende askoren partetik jasotako laguntza... Gauza horiek zeresana dute eta nik behintzat ahalegin guztiak egingo ditut hemen jarraitzeko.

"la ziurtzat joko nuke Bergaran jokatzeko jarraituko dugula"

I T U R R I O N E T I K

Museoko mineralak eta fosilak sailkatzeko lanak hasi dira

Luis Ignacio Viera Aranzadi Zientzia Elkarteko Geologia Departamentuko Presidentea Erret Mintegiko Museoko Mineralogia eta Paleontologia (fosilak) sailak txukuntzeko lanetan hasi da.

Aurretik Museoko Zientzia instrumentuak, Zoologia eta Giza Anatomia sailak landu ziren. Vierak mineralak eta fosilak bereiztu, zenbatu eta bildumaren balioa finkatuko du. Etorkizunera begira, bi sail horiei buruzko plangintza ere egingo du Vierak eta ziurrenik Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek hitzarmen bat sinatuko dute txukuntza lanak aurrera eraman ahal izateko.

E S A N
D U T E

"Ez dut uste bertso txapelketak beharrezkoak direnik. Andoni Egañak esaten zuen bezala, gaur egun txapelketak ez daukate lehen zuten funtzio bera. Orain arte egin diren gauza guztiak entzulearen mesederako izan dira eta bada garaia bertsolarien mesederako zerbait egiteko. Beraz, aurkezteko gogorik ez duenak ez dauka zertan aurkezturik"

AINHOA
AGIRREAZALDEGI
Bertsolaria
GOIBEKOKALE

"Nere estiloa klasikoa da baina behin maila bat lortuz gero estiloa hobetu eta ukitu pertsonalak landu behar dituzu"

EDU MURUA
Dantzaria
EGIN

"Hiru urtetan segidan txapela lortzea genuen helburu orain dela lau urte"

AMAIA AGIRRE
Dantzaria
EGUNKARIA



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du



HISTORIAS DEL KRONEN

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.


Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen
eguna).



NO TODO EL MUNDO...

Osteguna, zine-kluba: 20.00.



Zinea

▼▼ **Montxo Armendariz** (*Tasio, 27 horas, Las cartas de Alou*) zuzendariak **Jose Angel Mañas** idazle gaztearen nobelan oinarritutako filmela egin du. Bertan egungo gazterien sektore baten izaera isladatzen saiatu da eta, nahiz eta Cannesen saririk ez jaso, takiletan erantzun ona izan du. Besteak beste, **Jordi Molla, Juan Diego Botto, Nuria Prims** eta **Cayetana Guillén** aktoreen partaidetzarekin.

▼▼ Titulu oso luzea (*No todo el mundo puede presumir de haber tenido unos padres comunistas*) duen filme bat zine-klubaren azken emanaldian. 1958 urteko Parisen girotuta, **Irene (Josiane Balasko)** eta **Bernard (Maurice Benichou)** senar-emazteen arteko desberdintasun ideolojikoak planteatzen zaizkigu.

▼▼ San Juan auzoko jaiak ospatuko dira astebukaera honetan. Gaur 7etan kanpai jotzea, etxaflero jaurtitzea eta txopo sartzea, 9etan San Juan sua eta ondoren afaria. Bihar, 11etan Meza Nagusia, loren bedeinkapena eta ondoren Iosu eta Iokin trikitilariak. Amaitzeko, igandean, 11etan meza eta 17.30etan San Juaneko II. Autokros Txapelketa.

Deiak

▼ **Mendi irteera.** 14 urtetik gorakoentzat Anboto eta Atxartera mendi irteera igandean. Izen ematea Pol-Poleko bulegoan.

▼ **Frank Delgado** kubatar kantaria gaur 22.30etan Osintxuko Euskalduna tabernan.

▼ **Bideoa.** *Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan* haurrentzako bideoa bihar larunbata 11etan Kultur Etxean, JARDUNek antolatuta.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, hilak 28, 7etan Seminarioko bajuetan.

▼ **Xamatzen** jantzi erakusketa igandera arte Kultur Etxean.

Ogia

▼ **Igandea 25:** Bolintxo (Zurradero 2ko okindegi berrian).

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 23:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 24:** Guallar/Morales.
- ▼ **Igandea 25:** Guallar/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 26:** Estella/Español.
- ▼ **Asteartea 27:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 28:** Camacho/Irizar.
- ▼ **Osteguna 29:** Puy/Morales.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Ea bada, gora teloia!

Gorakada y Paparote taldeak ¡"Buenas Noches"! emango du gaur

Gorakada y Paparote taldeak "¡Buenas noches!" antzieslana eskeiniko du gaur, ostirala, 22.30etan Mariaren Lagundian. Emanaldia gaur eta bihar UNEDen egitekoak ziren Gerontologia Psikosozi-aleko ihardunaldien barne kokatzen da eta Gorakada y Paparotek zahartzoari buruzko ikuspegia ematen digute.

Miguel Garridoren zuzendaritzapean, Ales Díez eta Javi Tirado aktoreek guztiz diferenteak diren bi zaharren paperak jokatzen dituzte. Bata musika-zale amorratua dugu; besteak, berriz, itsasuntzie-kiko zaletasuna dauka. Erresidentzia bateko gela bat konpartitzean, egunero bizitzan bataren zein bestearen izaera, maniak eta umore txarra agerian geratuko dira. Sinopsian jasotzen denez, "elkarbizitzak eztabaida entregabea dakar, gauez



Zahartzaroaren arazoa lantzen da antzieslanean.

lasaitasuna etorri arte. Irudimenari esker, beren ingurua aldatuko duten gertaerak eta pertsonaiak azalduko zaizkie, tolerantziari bidea irekiz".

Antzieslanean errealtatea eta fantasia nahasten dira eta, umorearen bidetik, emozioz beteriko situazio barregarriak ikusteko aukera izango

Antzerkia UNEDek antolatu du eta sarrera doan izango da

dugu. Gorakada y Paparotek teknika ezberdinak tartekatzen ditu, aktore lanez gain, clown, mimoa edota txotxongilo teknikak landuz.

Aktoreei dagokienez, Javi Tiradok Diego Murcianorekin batera Paparote taldea sortu zuen 1989-an, "¡Atención... se rueda!" (1989) edota "Bilin balan" (1991) antzieslanak eginaz. Clown eta txotxongiloen fusioa landu dute. Ales Díez eta Julio Perugorriak osatzen duten Gorakada taldeak haurren txotxongiloen mundua jorratu izan du, "Zirkoa" (1989), "Atxis Pum" (1990), "Piezatos" (1991), "Operación reziklatex" (92) edota lehen aipatutako Nahikoa lane-kin.

Gaurko emanaldirako sarrera doan izango da. Beraz, badakizue 22.30etan Mariaren Lagundian duzue zita.




B • O • L • U

Aranerreka, 9 behea
☎ 76 51 20

UDAKO ESKAINTZA BEREZIA

Ekain, uztail eta abuztuan, Bolu Gimnasioan izena emateagatik MATRIKULA DOAN irtengo zaizu...



75x36x30 zentimetroko poltsa

...Eta ez hori bakarrik: KIROL POLTSA ederra OPARITUKO dizugu!!

Ikusi Makusi?

Orain bi aste Elkarrik bere momentuko loteria berria martxan jarri zuen, asmo horrekin eginiko ekitaldi publiko baten bitartez. Zein izango gure sorpresa eta txartelak aurkezten neska talde bat Ikusi maku-siaren txartelak harturik guztiz irripartsu, hain kritikaturako Tele 5-ko edozein saio-tako azafaten gisara ikusi genituenean.

Beste edozein erakunde edo enpresak honela aurkeztuko balu bere produktua, gure amorru eta kritikak jasoko lituzke. Baina sentimendu hau areagotzen da Elkarri bezalako erakunde batek, euskal gizartearen adierazle edo elkargune izan nahi duenak, emakumea erabili behar izan duenean bere produktua ezagutarazteko. Gu geu, emakumeon erabilera sexista egirik; emakumeak objektu sexu-publizitario hutsak izango bagina bezala.

Nola onar dezake bere burua giza mugimenduzat duen erakunde batek emakumearen horrelako erabilera sexista egiten duen jokuan sartzea? Hau al da gizartearen, edo gutxienez euskal gizarte honen zati baten erakusle izan nahi duen erakunde batek eman nahi duen irudia? Edo beharbada emakumea objektu publizitario eta sexistatzat duen giza estraktuaren ordezkari izan nahi du Elkarrik?

Ez al da Elkarri gizartearen partehartze aktiboa eskatzen duen mugimendua? Ez al du tolerantzia aldarrikatzen beste ezeren gainetik? Orduan, ez ote dira Elkarri konturatu jarrera hau euskal gizarte osatzen dugun zati haundi batentzat

iraingarria eta mingarria izan daitekeela?

Egia esan, ez dugu uste Elkarrik honelako bideak erabiliz euskal gizartearen partehartzea bultzatuko duenik. Besterik gabe.

BERGARAKO EGIZAN

Eusko Alkartasunaren salaketa

Bergarako Eusko Alkartasunak ekainaren 5ean goizeko 6etan Barrenkaleko egoitzako balkoitik ikurriña lapurtu izana salatu nahi du.

Itxuraz inoren gauzen zale diren jaunoi eskatuko genieke pixkat pentsatu dezatela eta konturatu daitezela zentzuz jokatzeko eta elkar errespetatzea izan behar direla herri honen elkarbizitzaren oinarri.

BERGARAKO EA

Eskerrik asko

San Juan auzoko Jai Batzordeak eskerrik eman nahi dizkie auzoko enpresa guztiei, San Juanetako jai egitaraua prestatzeko eta aurrera eramateko emandako laguntzagatik.

Besterik gabe herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu antolatu diren jai ekitaldietan parte hartzera.

SAN JUANGO JAI BATZORDEA

Selektibitatea pikutara

Aurtengo kanpaina, beste urte askotatik bezala, selektibitatearen faktore negatibokin amaitu nahi dugu.

Ikasleon eskubide mugaketa somatzen da guzti honen atzean. Aurtengo helburu gasteizko eta Iruñeko gobernuarekin negoziatzea da eta horregatik azpimarratzekoa da kanpaina honen seriotasuna.

Arrazoi asko dira selektibitatearen aurkatzeko gaituztenak. Lau urtetako lana bi-hiru egunetan baloratzea "fantasmada" hutsa izan daitezke gain harrigarriak dira azterketa horien egiteko ordaindu behar dituzun kuota (8.000 pza.).

Ezin dugu sinetsi azterketa honen balio garrantzitsua. Gure ikasteko eskubidea murrizteaz gain gure etorkizuna murrizten baita (asko dira azterketa hau gainditzen ez dutelako kalean geratzen direnak).

Autoritarismo frogarria bat delako gazteok kaleratzerako bide garbi bat delako eta gobernuaren jokoaz nazkatutik gaudelako burua altza eta esan ozenki: Selektibitatea pikutara!!

Gora munduko ikasleak!!

IKASLE ABERTZALEAK

Tiira biraka



◆ **Udalaren oharra**

Udalak jakitera eman duenez, zaborrak uzteko tokiak eta ordutegia errespetatzen ez dituztenak identifikatuz gero, bigarren fase batetan multak jartzeari ekingo zaio. Multak 500 eta 5.000 pezeta bitartekoak izango dira.

◆ **Uda kanpaina**

Uda-95 kirol kanpainaren lehen txanda astelehenean hasiko da. Interesatuak 20 espezialitatearen artean aukeratu ahal izango dute. Bigarren txanda uztailearen 10etik 21era bitartean egingo da eta izen-ematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke.

◆ **Mendi bizikleta**

Igandean, goizeko 10etatik aurrera Elgetako IV. Mendi Bizikleta Martxa (29 Km.) jokatu da.

JAIOTAKOAK

Leire Aguayo Arizaga

Ekainak 8

Oier Elorza Sádaba

Ekainak 15

Sergio López Hidalgo

Ekainak 18

HILDAKOAK

Felisa Bengoa Urrejola

Ekainak 17, 71 urte

Angela Fernández Ferreras

Ekainak 19, 68 urte

Sor Maria Teresa Aranburu

Olaran

Ekainak 21, 87 urte

Udalbatza berria osatu zen joan zen larunbatean

EAJk, EAK eta PSE-EE-ren botoek datozen lau urtetarako alkatetza eman zioten Victoriano Gallastegiri (EAJ) aurreko larunbatean. Aurretik Udalbatza osatuko duten 17 zinegotziek euren krentzialak jaso eta karguari zin egin zioten, HBko zinegotziek "legeak behartuta" formula erabiliz.

Udalbatza berria zinegotzi hauek osatuko dute: Victoriano Gallastegi, Javier Gabilondo, Luis Abajo, Koldo Pereira, Felipe Altuna, Xabier Zabaleta eta Nere Amaia Zabala (EAJ); Maite Aristegi, Jesus Mari Garitano, Aitor Aranzabal, Mikel Eguren, Anè Miren Olabarria, Jose Ramon Etxeberria eta Agurne Barruso (HB); Juan Mari Garitano eta Jose Antonio Etxeberria (EA) eta Alvaro Esparza (PSE-EE).

Larunbateko bozketa sekretuan Victoriano Gallastegik tripartitoaren 10 botoak jaso zituen eta Maite Aristegik, berriz, bere alderdiaren 7 botoak. Jarraian idazkariak Victoriano Gallastegi alkate izendatu zuen. Alkatetza eskertza hitz batzuk zuzendu zizkien Udaltzeko Pleno Aretotik Nagusian bildutako herritar ugariei, programa elekto-



Agurne Barruso eta Felipe Altunak osatu zuten adin mahaia.

rala aurrera eramateko konpromezua hartu zuen eta azkenik, Udalbatza osoko kideei eta udal langileei lankidetzak eskatu zien Plenoa amaitutzat eman. Maite Aristegik hitza eskatu zuen, alkateak ez zion eman eta Pleno Aretotik alde egin

zuen. Aristegi bertan geratu ziren zinegotziei eta herritarrei zuzendu zitzaizkien, tripartitoaren planteamendua kritikatu ber gararren 7 ordezkariaren eritzia baztertu eta herritarren zati bat erabakiak hartzeko ahalmenik gabe geratzen delako.

UDAL GOBERNU TALDEAREN ORGANIGRAMA

Gobernu Batzordea: Victoriano Gallastegi, Javier Gabilondo, Luis Abajo eta Koldo Pereira (EAJ); Juan Mari Garitano (EA) eta Alvaro Esparza (PSE-EE).

Hazienda Batzorde Burua: Victoriano Gallastegi (EAJ).

Gobernazio Batzorde Burua: Javier Gabilondo (EAJ).

Kultura eta Jaiak Batzorde Burua: Luis Abajo (EAJ).

Hezkuntza eta Euskara Batzorde Burua: Koldo Pereira (EAJ).

Auzoetako Batzorde Burua: Felipe Altuna (EAJ).

Kirola Batzorde Burua: Xabier Zabaleta (EAJ).

Hirigintza Batzorde Burua: Jose Antonio Etxeberria (EA).

Ongizate Batzorde Burua: Alvaro Esparza (PSE-EE).

MEMESA



ARRASATE 79 42 22 ARETXABAleta

SFK

◆ Elkarriren deia

Uztailaren 1ean Elkarrik Madrilen egingo duen "Topaketa isila"ra joateko autobusa aterako da Bergararik. Interesatuak UNEDeko liburudendan edota 76 53 01 telefono zenbakian eman dezakete izena.

◆ Ekitaldiak Jubilatuetan


Datorren astean hainbat ekitaldi antolatu dira Jubilatuetan. Astelehen eta asteartean toka, bolo eta igel txapelketak jokatu dira, asteazkenean kantu eta dantza erakustaldiak, txiste kontaketa eta merienda. Ostiralean, hilak 30, San Martzialera igoera egingo da eta, azkenik, astelehenera ostiralera bitartean egurrarekin egindako eskulanen erakusketak ikusgai izango da. Ekitaldi ezberdinetarako izen-ematea Jubilatuetako atezaintzan.

◆ Beart

Beart elkarteak antolatuta, astelehenean, hilak 26, "Planeta-Crédito S.A." enpresak garai guztietako arkitektura, eskultura edota pintura multimedia edota CDI sisteman aztertzen dituen artearen historiari buruzko erakuspena egingo du. Artea era berezi batean ezagutu nahi dutenek Kultur Etxean dute zita. Sarrera doan izango da.

◆ Bedelkarren ikastaroa

Azkenik, astelehen honetan, hilak 26, hasiko da Bedelkarrek antolatutako "Gestión comercial informatizada" (20 ordu) ikastaroa. Izen-emateak 5.000 pezeta balio du eta interesatuak 76 04 68 telefono zenbakira deitu dezakete.



• 3.200 lagun inguru dira igerilekuetako erabiltzaileak.

Kanpoko igerilekuak zabaldu ziren asteartean

Udan goizeko 10etatik 9ak arte izango dira zabalik

Asteartetik zabalik daude kanpoko igerilekuak, goizeko 10etatik gaueko 9ak bitartean. Aurten ez da aparteko nobedaderik, belarraren mantenimendua hobetzeko gauez martxan jarriko den erregadio sistema berria izan ezik. Bestalde, goizez sokorrista bat eta arratsalde bi arituko dira, Iruñe Azpeitia, Mireia Markiegi eta Jose Luis Silva tarteak. Garbitasuna eta jendea atenditzeko lanetan, berriz, Isabel Pagaldai, Jesus Mari Garaiz, Izaskun Oteo eta Andoni Bollar izango dira.

Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, 3.200 bat lagun dira igerilekuetako erabiltzaileak eta abonatuak, berriz, 1.330 inguru. 20 urtetik gorako langileentzat 12.750 pezeta balio du Kirol Zerbitzuko

bazkide-txartelak, 1975-1977 bitartean jaiotakoentzat 10.325 pezeta eta 1978-92 bitartekoentzat 8.100 pezeta. Bestalde, soldaduska egiten direnak, gutxienez 6 hilabeteko langabezia dutenek edota Deba Garaitik kanpo ikasten ari diren ikasleek 7.025 pezeta ordaindu behar dituzte urtero.

Bestalde, sarrerei dagokienez, 18 urtetik beherakoek 370 eta 18 urtetik gorakoek 550 pezeta ordaindu beharko dituzte eguneko. Era berean, 10 bainutarako bonoak eskuratu ahal izango dira 3.000 eta 4.900 pezetaren truke. Azkenik, hamak alokatzea arratsaldeko ordu biak arte 100 pezeta izango da eta ordubietatik 9ak bitartean 200 pta. Egun guztirako hartzekotan, berriz, 300 pezeta ordaindu beharko dira.

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



Txakurrek San Juango Elortza Bolu eta Aretxabaleta baserrietan akabatu zituzten ardiak.

Txakurrek akabatutako bi ardi agertu dira San Juanen

Orain hiru hilabete moxal bat akabatu zuten

Aurreko ostiral gauean San Juan auzoko Elortza Bolu eta Aretxabaleta baserrien ingurutan agertu ziren bi txakurrek bi ardi akabatu zituzten. Elortza Boluko bizilagunek ardien trotearen eraginez txakurren presentzia somatu zuten eta zelaira gerturatu zirenean ardi bat akabatuta aurkitu zuten.

Txakurrek errekatik zehar hanka egin zuten eta testiguen arabera bi ehiza txakur omen ziren, beltza bata (lepokoarekin) eta zuria eta gorrixka bestea. Elortza Boluko baserrikoek Bergarako Ertzaintzari dei egin zioten eta Ertzaintzak Aretxabaleta baserrian beste ardi bat modu berean akabatuta agertu zela jakin arazi zien. Baserritarrek denuntzia jarri ondoren, Ertzaintzak gertatukoaren argazkiak atera zitu-

en, atestatua egin eta dilijentziak zabaldu ditu. Dirudenez, txakurrak aske bizi dira eta baliteke beren jabeek abandonatutakoak izatea. Beste aukera bat txakurrek jabeak konturatu barik gauzez alde egitea izan daiteke. Dena den, kasu honek orain 3 hilabete San Juanen bertan gertatutako beste batekin lotura izan dezake. Orduan moxal bat agertu zen akabatuta San Juango Esperantza baserrian eta baliteke txakur berak izatea moxala akabatu zutenak, txakurren deskripzioa antzerakoa baita bi kasuetan.

Beraz, inork txakurrei buruzko informazioa edukiko balu Bergarako Ertzaintzari (76 53 40 telefono zenbakia) deitzeko eskatzen zaio gertatutakoak argitu ahal izateko.

◆ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskeniko du igandean 12.30etan Espoioian. Programa honako hau izango da: *Gerona* (Pasodoble, S. Lope), *Un día en Viena* (Obertura, F. Suppé), *St. Martin's suite* (J. V. der Roost), *Dances with wolves* (Banda Sonora, John Barry) eta *San Martzial* (Euskal Irudiak, Miguel Glez. Bastida).

◆ Gerontologia

Arrasateko ICTE (Instituto Comunitario de Tercera Edad) Institutuak gerontologiako ikastaroak antolatu ditu uztailearen 3tik 6ra bitartean, 17.30etatik 20.00etara. Aztertuko diren gaiak, osasun psikikoa agurengan eta pertsona nagusientzako arreta programak. Argibideak 79 02 11 eta 77 05 00 telefonoetan.

◆ Korrikaren bideoa

Korrika Antzuola, Elgeta eta Bergaratik pasa zenean Amaia Labaienek egindako bideoa gaur 19.30etan aurkeztuko da Pol-Polen.

◆ Pintadak

Maiatzaren 6an Udaletxeko fatxadan agertu ziren pintaden kasua probisionalki alde batera utzi du Bergarako Epaitegiak, orain arte egindako ikerketen arabera ezin daitekelako jakin pintaden egilea nor izan den.

◆ San Martzialeko mahaiak

Ostegunera arte zabalik izango da Kultur Etxean San Martzialerako mahaiak alokatzeko epea.

LARRAÑAGA

eta **ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Ekologia

Bergarako fauna

- Herrian bertan faunarik ba al dago?

- Animaliak ikusteko mendira joan beharra dagoela uste du jendeak baina herri barruan bertan, bi hankakoez gain, animalia mordo bat aurki ditzakegu.

Ornodunen artean, esate baterako, narrastien espezie pare bat ezagutzen ditugu, etxe artean edota kalean aurki daitezkeenak. Anfibio espezie pare bat ere badira eta ugaztunetan aberastan gehiago dago oraindik. Talde aberatsena hegaztiena da: kaskuan, herri barruan, ohizko uso eta txantxangorriez gain, 20 bat espezie daude.

- Hegazti horiek non bizi dira?

- Etxetako horma eta teilatueta, jardin txikietan, kaleko zuhaitzetan, parkeetan... Hegazti batzuren izenak aipatzekotan, bustingorri iluna, usapal turkiarra edota urubi arrunta nabarmendu daitezke.

Bustingorri iluna hegazti txiki bat da, jatorriz mendietan, harkaitzak dauden lekuetan bizi dena baina azken urteetan teilatueta ere aurki dai-

teke eta gaur egun Bergarako kaskuan nahiko ugaria da.

Usapal turkiarra, berriz, espezie asiaticoa da baina mende honetan Europa mendebaldean hasi da agertzen. 1960. urte inguruan Euskal Herrira iritsi zen eta oraintxe bertan Bergaran bikote bat ezagutzen dugu.


Azkenik, urubi arrunta 46 cm.ko altuera daukan gaueko harrapakaria da.



IÑAKI IRIZAR
(Biologoa)

Jatorriz basoetako hegaztia da, hemengo mendietan oso arrunta da eta herrian ere ikusten da. Herriko parke batzuk nahiko naturalak dira eta hegaztiak bizitzeko baldintza onak dituzte eta guk ezagutzen dugun bikote batek etxe baten

"Herri barruan 20 bat hegazti espezie daude"



Urubi arrunta gaueko harrapakaria herri barruan aurki daiteke.

ganbaran egin du kabia.

- Beste espezierik badago?


- Horrez aparte, enara azpizuria (teilatuen azpian egiten dute kabia), zorbeltz arrunta (nahiko ugaria Bergaran), buztanikara zuria (errekaldean gero eta gehiago ikusten da), zozoek, birigarroak eta beste asko ere badaude.

Bergaran gauza dexte dago, gauza politik gainera. Animalia espezie asko ezagutzeko ez dago kanpora joan beharrik eta interesa duenak ez dauka asko mugitu beharrik. Horren kontserbazioari begira oso inportantea da parkeetan naturaltasuna eta dibertsitatea mantentzea. Era berean, ibaiertzak edota horma zahar askotan dagoen landaretza eta zona berdeak eta zuhaitzak ahalik eta gehien errespetatzea komeni da, ahalik eta gutxien urbanizatuz.

- Baldintza onak ematen dira herri barruan?

- Badaude lekuak baldintza onak dituztenak baina etorkizunera begira aberastasun hori mantentzeko sentsibilitatea izan behar dugu guztiok. Egoera naturaletan dauden parkeetan urbanizatzen hasten bagara, animalia gehienek alde egingo dute. Ibai ertzetan ere landaretza puska bat badago.

BOLSOS BERGARA, S.L.



✓ Bidaia-bolsak, kirol-bolsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialia

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

Dantzan nagusi

Bergararrak protagonista dantza sueltoan



Amaia eta Eduk Euskadiko txapelketa hiru bider jarraian irabazi dute. ARGAZKIA: EL DIARIO VASCO.

Igandean Seguran jokaturako txapelketan 21 bikotek hartu zuten parte. Goizeko saioaren ostean 10 bikote sailkatu ziren finalerako; 7 lehenen artean geratu ziren 4 bikote bergararrak. Emaidza Muruak eta Agirrek borobildu zuten, txapelaz gain, 3. urtez jarraian irabazteagatik Basterretxearen eskultura eskuratu zutelako.

Hori da dantza egitea!" horixe zen igandean jendeak ahotan zerabilen esaldia; adituek maila onaz hitzegiten zuten. Eta egia esan, edonor gertatzen zen liluratuta ikusizunaren aurrean.

Azkenean goizeko saioaren ostean iritsi zen finala, nerbioak ziren na-

gusi. Telebistak Ena anaiak urduriago jarri zituen. Hala ere, Aitzolek okerrren gerrikoa askatu zitzaionean pasatu zuen: "*nerbioak zirela eta ez nuen ondo lotu eta dantzan ari nintzela askatu eta mutur bat inperdibleari lotuta geratu zitzaidan. Oso gaizki pasatu nuen*".

Amaia eta Edu ere ez

zeuden lasai: "*Ondo baino hobeto egin behar genuen, jokoan Basterre-*

txearen eskultura eta horrek esan nahi duena zegoelako. Psikologikoki aurtengoan izan da gogorrena".

Jonek eta Maitek helduen mailan lehen txapelketa zuten, "*denek diote helduen maila beste mundu bat dela, gurasoak ez direla sartzen eta txikietan baino giro hobea dagoela. Helduekin dantza egiteko irrikaz geunden lehen ezagututakoekin dantzatzeko, eta urduri oso urduri*".

Eguneroko lana

Dantza saioak 6 minutu ere ez du irauten, han egindakoa, ordea, urteetan eta txapelketa aurretik etengabe egindako lanaren fruitu da. Ordurik gehien sartu dutenak gaz-



Edu datorren urtean ez da txapelketan arituko. ARGAZKIA: EGIN.

teenak dira, Jon eta Maite. "Gábonetan eta irailean oporrak izaten ditugu, baina bestela asteen 3 egunetan entsaiatzen dugu. Segurara joateko azken bi asteetan egunero ordu t'erdian jardun dugu".

Aitzolek eta Josunek azken hilabeteetan entsaiatu behar izan dute, Josunek orkatilan arazoak izan dituelako. Asierrek hauxe dio: "aurten iaz baino gehiago entsaiatu dugu eta nabaritu da". Hala ere, sakrifizio hitza erabili dutenak txapeldunak izan dira. "Urrian bazi ginen entsaiatzen eta azken asteetan egunero aritu gara ordu t'erdiz edo. Guretzat oso gogorra izan da, bat Bergaran eta bestea Donostian gaudelako, Itsasondo erdibidean geratzen zitzagunez bertan entsaiatu dugu".

Hernaniko eta Bergarako estiloa

Txapeldunen ustez, dantza azken 10 urteotan asko aldatu da. "Jende gehiago dabil eta lan asko egin da. Teknikak hobetu egin dira, urrats berriak sartu..." Teknikak ahaztu barik, bikote bakoitzak bere herriko dantzatzeko

TXAPELDUNEN SEKRETUA: Lana eta izerdia

"Irabaztera atera ginen, baina beldur ginen aurten ez ote genuen irabaziko, izan ere, oso maila altua baitzegoen; gainera, 3 urtez jarraian irabaztea oso zaila da; Basterretxearen eskultura txapeldunen txapeldunei emateh zaie eta bagenekien epaimahaiak besteei baino gehiago eskatuko zigula. Epaimahai txundituta lagatzeko zerbait berezia egin beharra genuen: pauso berriak asmatzea arriskutsua zen, beraz beti egiten genuen dantza zaildu egin genuen. Esate baterako, bueltak atsedean hartzeko izaten dira, ba guk bueltetan guraizeak eta saltoak sartu genituen; hankak inoiz ez genituen behean, beti aidean eta urrats gogorrek egiten... dena horrela. Izerdi asko bota eta lan handia egin behar izan dugu, baina azkenean, irabazi eta Basterretxearen eskultura eskuratu dugu. 3. aldiz irabazteak bestetan baino ilusio handiagoa egin digu, kontutan hartu behar da orain arte bi bikotek bakarrik lortu dutela marka hori".

erari heltzen dio. Segurako finalean 4 bikote bergar baziren ere, txapeldunen ustez nabarmena zen estilo desberdintasuna: "Bergaran Moises Azpiazuren eskolakoak gara: dantzak osotasuna du, ez gara bakarrik banketan oinarritzen, gorputz osoa jartzen dugu dantzan. Txapelketan garbi ikusi zen, hanke-

tan teknika handia zegoen baina oso gutxik

mugitzen zuten gorputz osoa; gorputzak bizitasuna, espresioa behar du. Bergarako estiloa indarrean oinarritzen da, indarra banketan eta besoetan. Aitzol eta Asier esaterako, bergararra izan arren Donostia aldeko eskolakoak direla esan daiteke eta finago egiten dute dantza, ballet estilora edo, puntetan ia ez dute markatzen... beste estilo bat da".


Udan txapelketak. Eta gero?

Euskadiko txapelketa burutu arren, dantzariak ez diote dantza egiteari lagako. Udan herriz hertxapelketetan ibiliko dira. "Mailari eusteko oso garrantzitsua da". Geroan begira, berriz, Asier-Laura, Aitzol-Josune eta Jon-Maite bikoteek Euskadiko txapelketa irabaztea dute amets. Eduk eta Amaiak euren helburua, hau da, 3

"Moises Azpiazuk piztu zuen Bergaran dantzarako zaletasuna"



Jon eta Maite txikitatik ari dira elkarrekin dantzatzen.



KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibartekoaren
espezialitatea

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



Jon Aranburuk eta Maite Lazkanok lehen aldiz hartzen zuten parte nagusien txapelketan eta finalera heldu ezezik, 7. postuan sailkatu ziren.

MAITE BARRENA

Urteetan dantzari eta dantza irakaslea

Oso maila altuko finala izan zen, eta bergararrak oso ondo aritu ziren: Amaiak eta Eduk dantza hasi eta bukatu ezin hobeto egin zuten; oso bikote ona egiten dute, konpenetratio handia dute, arintasuna... Moisesen estiloaren jarraitzaile dira. Ena anaien bikotekideak hernaniarrak dira eta beste estilo batean dantzatzen dute. Asierrek eta Laurak iaz hartu zuten parte lehenengo aldiz eta ikusten da bikotea finkatu egin dela. Jonek eta Maitek Bergarako estiloan egiten dute; lehen urtean finalean sailkatzea oso zaila da eta 7. egin dute, meritu handia dute.

urtean irabazi eta garai-
kurra eskuratzea lortu
baitute. Eduk dioenez,
"Goian egotea zaila da,
eta bat Bergarari eta bes-
tea Donostian egonda
zailagoa. Datorren urte-
an auresku txapelketa
3. aldiz irabazi nahi
dut. Orain arte inork ez

*du lortu eta orain hori
da nire helburua". Ama-
ia, beraz, bikote barik ge-
ratuko da: "ondo etorriko
zait atsedean hartzea,
baina berriz dantza egi-
tea gustatuko litzaidake.
Arazoa da dantzan ia
mutilik ez dela ibiltzen"*
Dantzariek lerro ha-

uen bidez euren neska-
mutil-lagun, senitarteko
eta adiskideei eskerrak
eman nahi dizkiete eman
dieten laguntzagatik;
igandean Seguran izan
ziren guztiak agurtu nahi
dituzte, euren txalo, irrin-
tzi eta deiadarrak oso la-
gungarri izan zituztelako.

Edu Muruamendiaraz. 31 urte.
Amaia Agirre. 22 urte.
Txapeldunak (303 puntu).

- Edu Donostiako Eskola dan-
tza taldean ere badabil. Azken bi
urteotan auresku txapelduna.
- Amaiak Aitzol Enarekin 5 al-
diz irabazi du txikien Euskadiko
txapelketa.
- Edu eta Amaia duela 4 urte
hasi ziren elkarrekin dantzan.
- Seguran parte hartu zuten le-
hen aldiaren bigarren geratu ziren,
azken hiru urteotan txapeldun.

Asier Ena. 16 urte.
Laura Carpintero. 16 urte.
Hirugarrenak (277'5 puntu).

- Hiru urte pasatxo daramatza-
te elkarrekin.
- Laura hernaniarra da. Eskola
taldean dabil.
- Iaz, aurkeztu ziren lehen urte-
an, 7. geratu ziren, aurten 3.
sailkatu dira.
- "Ahalik eta ondoen egiten sa-
iatu ginen, eta postu ona espero
genuen, baina egia esateko
hainbeste ez".

Aitzol Ena. 21 urte.
Josune Sarriegi. 18 urte.
Seigarrenak (269'75 puntu).

- Bergararra eta hernaniarra
duela 4 urte hasi ziren elkarre-
kin. Hauek ere Eskolan dabil.
- 3. Euskadiko txapelketa dute.
Iaz 3. eta aurten 6. postua esku-
ratu dute.
- "Pozik gaude, baina goizeko
saioan 2. geratu ginen eta fina-
lean ez genuen espero 6. gera-
tzea, postu hobea lortuko genu-
ela uste genuen".

Jon Aranburu. 14 urte
Maite Lazkano. 15 urte.
Zazpigarrenak (256'5 puntu).

- Txikitatik dabilta elkarrekin, 6
eta 7 urterekin azaldu ziren jen-
daurrean.
- Txikien mailan 4 aldiz irabazi
dute Euskadiko txapelketa. Aur-
ten pasa dira nagusien mailara
eta lehen aldiz parte hartu duen
bikoterik onenaren saria jaso du-
te.
- "Oso pozik gaude, finalera iri-
tsi eta, 7. geratu gara!!"

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

AZPEITXI
Aranerreak, 13 behea ☎ 76 55 00
Jatetxea

Postalak turismoa herrira erakartzeko

Logroño, Haro, Gasteiz eta Donostiako hotel, jatetxe eta dendatan 15.000 postal banatu dira

Bergarako Udalak udako turismo kanpainari ekin dio herria promozionatzeko ateratako postalak banatuz.

Guztira, 15.000 postale kaleratu dira eta Logroño, Haro, Gasteiz eta Donostiako hotel, jatetxe edota hainbat komertziotan doan eskuratu ahal izango dira. Xabier Aranburu udal museologoak adierazi digunez, "postalek bi helburu nagusi dituzte: batetik jendeak postalak moduan erabiltzea eta bestetik herriaren erreklamo publizitario bezala erabiltzea".

Postaletan Moiu Dorrea, Egin Mallea, Santa Marina eta Udaletxeko argazkiak jasotzen dira eta atzekaldean "Artea eta historia: Bergara, sentitu bere zirrara" kanpainaren lema euskaraz, katalanez, erdaraz, frantsesez eta ingelesez irakur daiteke. Aranbururen hitzetan,

"Aste Santuan 175 bisitako edo kontsulta jaso genituen Turismo Bulegoan eta horietatik 100 kanpotarrak ziren. Hauen artean, berriz, katalanak nagusitzen ziren (35), Euskal Autonomi Elkartetik jasotakoak (30 bisita) ere gaituz. Honek Gipuzkoan ematen den tendentzia baieztatzen du. Jendea Madriletik, Zaragozatik baina batez ere Katalunatik dator".

Postalak ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean banatuko dira eta Aranbururen ustetan, "inguruko hainbat tokitan doan banatzen direnez, erantzun ona izango dutela espero dugu. Azken batean, Bergarara hurbiltzeko animatu nahi diegu kanpotarrei".


Turismo Bulegoa

Bestalde Turismo Bulegoa uztailaren 3tik irailaren 4ra bitartean izango

da zabalik, egunero goizez 2 ordu eta arratsaldez 3 orduko zerbitzua eskeinitz. Udalak konbokatuta-

ko lehiaketara 3 proiektu aurkeztu dira, bi bizkaitarrak eta bestea Oñatikoa. Aste Santuan Nis bilbotarrek eraman zuten bulegoaren ardura.

Udalak datorren astean emango du jakiteran nori adjudikatzen zaion zerbitzua.



Udalak banatu duen postala.

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Debalde

6. zkia

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g - 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 - Faxa: 76 08 19

Argitaratzaileak: ARRASATE PRESS, BERRIGARA, ELGOIBARREN, ...ETA KITTO!

Publizitatea: Imanol Amiano eta Antxon Iriondo

Tirada: 19.000 ale

Deba Bilarako BANATZAILEA



Berezano auzoa, z/g
☎: 78 25 92 - 78 19 50

OÑATI

AMETS



- Hergo, Hobby eta
Caravelair
KARABANAK
- Riviera
AUTOKARABANAK
- ERREMOLKEAK
SALMENTA ETA
ALOKAIRUA



Kanping eta karaba-
nertzako osagarriak



kanpina

ISABA - BELAGOA BAILARA (NAFARROA)

Telefonoak: 948 - 89 30 34 / 89 32 34 Faxa: 948 - 89 30 34

6 plazako 3 bungalow / 60 plazako albergea, 3-5-6-7-8 oheko logeekin

Jolas eta joko gela, billarra, ping-pong / Sukaldea zure esku

Akanpatzeko 400 plaza / Taberna - Jatetxea - Supermerkatua

Garbiketa zerbitzua / Aktibitateak: kainoi jeitsierak, zaldi ibilaldiak, senderismoa, espeleologia, etabar.

SUKALDEKO ALTZARIEN ETA ELEKTRAGAILUEN ERAKUSKETA

Alpe



MASTER
CADENA

Mariarats, 4
☎ eta Faxa:
88 86 84

20200 BEASAIN

Caravanas Oñate



Zubillaga, 20
20560 OÑATI
Tel. eta Faxa:
71 63 50

Karabanak: Knaus eta Roller
Autokarabanak: Benimar
Mota guztietako **Erremolkeak**
Mobil-Homeak: Roller eta
Benimar
MTB eta karreratako
bizikletak



Zuretzat eta zure bizikletarentzako akzesorioen
KONPONKETA ETA SALMENTA

Iragarki Merkeak

ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Zarautzen. Amueblatua. ☎ 78 19 50
- Pisua salgai Donostian. ☎ 76 31 79
- Etxea salgai Deban. Herri barruan. 3 logela, 2 komun, saloia eta sukaldea dauzka. ☎ 19 25 36 / 70 11 68
- Etxebizitza daukat Jakan, udan alokatzeko. ☎ 74 15 22

ALOKAIRUAK

- Pisua alokatzen dut Elgetan. Arrate (bazkal-orduetan). ☎ 70 13 94
- Etxe handia alokatzen da Deban, uztaila eta abuztuan. Alamedan. Idoia. ☎ 19 22 37
- Arrasaten lau edo bost lagunendako pisua alokatzen da. ☎ 77 03 38 / 79 18 03
- Abuztuaren bigarren hamabostaldian Ezkarai edo inguruetan etxea alokatu nahi nuke. Elena (iluntzean). ☎ 19 27 96
- Bi oheko gela alokagai. ☎ 79 07 73

GARAJEAK

- Garajea salgai. Bergarako Zurradero kaleko 2an. ☎ 76 12 42
- Garajea salgai Bergarako Boni Laskurain kalean. ☎ 76 15 64
- Garajea salgai Eibarko Egigurentarren kalean. Merke. 27 metro karratu. Estanteri edo apal batzuk dohain. Inax. ☎ 31 10 06
- Garajea salgai Eibarko Asua-Erreka kalean. ☎ 86 12 71

SALEROSKETAK

- Kanpinerako karro-denda salgai. ☎ 76 37 82
- Kanping denda salgai. Oso handia da eta egoera onean dago. ☎ 74 15 22
- Sukaldeko altzariak salgai, sukalde, ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Arantzazu (eguerdian edo gabeen). ☎ 79 01 66
- Logelako altzariak (2 ohe, 4 ateko armairua

eta sekreter aulkia) salgai. ☎ 76 47 27

- Bulegoko altzariak (mahaia, aulkia eta armairua) salgai. 40.000 pezeta. Egoera onean. ☎ 76 13 46
- Inpresora salgai. Zuri-beltzean. Ia berria. ☎ 74 20 95
- CD ROM irakurlea salgai. Estreinatuta gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S). ☎ 74 15 69
- Ezkontzarako emazte-gai jantzia salgai. Prezio interesgarria. ☎ 10 81 59

MOTORRA

- Ford Fiesta SS-N salgai. Egoera onean. Koldo (gaueko 9etatik aurrera). ☎ 58 40 01
- Honda 200 Trail erakoa salgai. 180.000 pezeta. Kaskoa oparitzen da. ☎ 79 69 66
- Vespa 200 beltza SS-W salgai. ☎ 79 46 98
- Korredorezko Biondi bizikleta salgai. Oso

merkea. Josu. ☎ 76 49 30

- Tandem bat gustora alokatuko nuke udarako. Ahal izan ezker, mountain-bike tandem izatea gustatuko litzaidake. Iñigo. ☎ 70 05 97

ANIMALIAK

- Atxuri baserrian collie arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 15 04 01
- Collie kumeak salgai. ☎ 79 08 98
- 5 hilabeteko collie artzai txakurra oparituko nuke. Beatriz. ☎ 76 50 58
- Txakur emea estaltzeko Doberman arra behar dut. ☎ 76 57 67

LANA

- Genealogia egiteko historialaria eskaintzen da. Arkaitz (20,00etatik aurrera). ☎ 88 30 72
- Etxerako interna zerbitzua behar baduzu, deitu. ☎ 10 30 03
- Etxetan lanak egingo nituzke edo umeak zaindu. M^a Angeles. 10 03 07

**Manuel J.
Perona**

**ORTODONTZIA
EGOKITUA
ZEURETZAKO**

EE.BB.ko Kaliforniako
Roth Williams Center-en diplomatua
R.P.S. 216/94

**Haur eta Helduen
Ortodontzia**

**DATO, 19 - 1.
Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12
01005 GASTEIZ**

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBORAKO
GABINETEA
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA**

*Heste-garbigeta
Idorreria
Aerofagia
Gaisotasun kronikoak
Gaitz digestiboak
Gorputzaren garbigeta
Hammer Doktorearen metodoa
Psikeari laguntzeko terapiak
Numerologia analitikoak:
Pertsonaren azterketa osoa,
orainaldian, iraganean eta
etorkizunean*



**Zuzendaria: Joan P. Goikoetxea
Paseo de la Senda, 5 - 1. ezk.
Gasteiz-Vitoria Tfnoa: 945 - 14 83 48**

**Carrión
música, s.a.**

Instrumentu musikalak
Pianoak: Yamaha, Samick, Kawai...
marka guztiak.
Kitarra elektrikoak, anplifikagai-
luak, teklatuak, MIDI sistemak.
Zerbitzu teknikoak.

Tabernak eta diskotekak soinu-
tutzen ditugu. P.A. Ekiopak.



Manuel Iradier, 20

☎ (945) 23 07 49

Faxa: 23 14 25

01006 GASTEIZ



C A D E

**EUSKADIKO
ZENTRU
AUDIOPROTESIKOA**

M^o NIEVES ALVAREZ GARCIA
AUDIOPROTESISTA

*Ziur al zaude erabiltzen
dituzun audifonoek
entzun dezakezun guztia
entzuarazten dizutela?*

*Behar bezalako
adaptazio ezak
entzuteko ahalmenak
mugatzen ditu.*

**DATO, 18 - 4. TFNOA. (945) 13 76 01
01005 GASTEIZ**

Ekainaren 27an, asteartean Hasten gara!

UDAKO BEHERAPENAK '95

*Prezio merkeagoak... ezinezkoa!!
andre-arropak, kirol, ume, gizonezko eta etxerako sekzioetan.*

**"Hondartzarako toailetan" aukera ederra
prezio paregabeetan.**

Kaltatea eta **Ekonomia**... zeure etxerako.



ECOCENTRO

Domingo Beltrán, 12 • Los Herrán, 34 • Portal de Villarreal, 28.
VITORIA • GASTEIZ

ETXEPARE - BILINTX

LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.



**Ibargarai, 12 - Tlf. 76 40 50
20570 BERGARA**

Aurrezkiaren sari,

Uztailaren 28ra arte, **kutxan**

aurreratuz gero, oparia eramango


duzu etxera. Nahi adina opari.

Hiru hilabeterako diru-ezarpen

bat egiterakoan, interesak aurretik

emango dizkizugu-eta, mahai gaineko erloju, lauskigailu bikoitz edota

camping edo hondartzarako 25 osagaidun picnic-sorta bihurturik.



Hermle Quartz Erlojua
250.000 pta.ko ezarpena



Ufesa Citropress Duo Ex-7634 Lauskigailua
400.000 pta.ko ezarpena

Berehalako Opari



Thermos Cooler
25 osagaidun Picnic-Sorta
600.000 pta.ko ezarpena

Erraza da. **kutxa**ko edozein

sukurtsaletara etomi eta galdetu

Berehalako Oparien sustapenaren

berri. Aurrezkiea egin, eta kito. Eraman

ditzakezu etxera opariak **Berehalaxe**.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Brigada Internazionalistak herriak hurbildu nahian

Komite Internazionalistak aurtengo udarako brigadak aurkeztu zituen joan zen ostiralean Pol-Pol tabernan. Guatemala, El Salvador eta Kubako brigaden diapositibak eskaini ziren eta ondoren "Parranda Zapatista" egin zen.

Euskadiko Komite Internazionalistek pobrezian eta beharrean dauden herriei elkartasuna adierazteko brigadak antolatu dituzte udarako. Palestina, Guatemala, Nikaragua, El Salvador eta Kuban uztaila, abuztua eta iraila pasatzeko hainbat brigada mota daude. Palestinan esate baterako, giza eskubideen, hezkuntzaren, osasunaren eta emakumearen alde lan egiten duten ezkerreko erakundeekin harremanak izango dituzte. Guatemalan, berriz, auzo marginaletara bisitak egin eta giza elkarte, sindikatu edota alderdi politikoekin harremanak izango dituzte. Kuban, zaharretxe baten berrizte lanak egingo dituzte...

Uztail eta abuzturako brigadak osatuta daude dagoeneko, baina iraile-rako tokiak badaude

oraindik. Beraz, norbaitek brigadista lanak egin nahi baditu, Ordiziako 88 58 32 telefonora deitu dezake.

Imanol Larrea antzuo-larrak bi urte eman zituen Guatemalako Todos Santos herrian. "Mugarik gabeko al baitariak" erakun-

dearekin bertako nekazari-iei plangintzak egin, txertoak erabiltzen erakutsi eta abarrak egiten jardun zuen. Datorren astean berriz ere Guatemala aldera joango da, baina oraingoan brigadisten koordinatzaile lanak egitera: *"Ejertzitoarengandik ibesimendialdeetan eta basoetan gordeta daudenei edota beste herri batzutan errefuxiatuta daudenei lagundu, gerran dauden tokietan presentzia internazionala garrantzatu eta horrelakoak egiten ditugu"* adierazi digu.

Imanol Larrea antzuo-larraz gain, Bergarako beste hiruzpalau lagun brigadista arituko dira aurtengo udan Hego Amerikako hainbat herri-tan. Horien artean Markos Gabilondo, datorren astean Mexiko aldera abiatuko dena. Askapena erakundearekin ere joango da antzular bikote bat Ecuadorrera.

Ekintza solidario eta internazionalak

Komite Internazionalistak, Nazioarteko Elkartasun Mugimenduaren barruko erakundea da, berezko nortasuna duena. Aurtengo udarako brigaden eskaintza jasotzen den foileto batean esaten denez, *"Komite Internazionalistak ez da laguntza humanitarioa eskaintzeko, talde bat eta lankidetzeta hutsaren aurretik sentsibilizazioa eta kontzientziazioa ipintzen ditu. Sortzen diren gatazka, baliabideen banaketa injustoa edota aurre-rapenaren paradigmaren ikur den mendebaldeko kulturaren goraipamena salatzen du"*.



Aurtengo Brigadak aurkezteko Parranda Zapatista egin zen joan zen ostiralean Pol-Polen.

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45


GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

Zein eritzi daukazu CESIDen entzuketa telefonikoei buruz?




Antonio Luarizaristi
73 urte, jubilatua

Zure gauza sekretuak ez zaizkio inori ardura eta ez dut entzuketa horrek egitea normala ikusten.



Francisco Gómez
47 urte, langilea

Egin dutena ez dago batere ondo. Espioitza betidanik existitu da baina mundu guztiei ezin da kontrolatu eta are gutxiago Estatu burua, kasu honetan bezala.



Jabier Loiti
36 urte, irakaslea

Pentsatzen dut faltsukeria asko dagoela eta hori nolabait argitu behar da. Ea noizbaiten konpontzen eta argitzen den dena.




Yolanda Juaristi
37 urte, langilea

Hori egiten dela jakiteak baino informazio hori argitaratzeak harritu nau. Entzuketa horiek lehendik egiten zirela nahiko argi zegoen.



Aurora Pérez
76 urte, etxeoandrea

Gauza hori eta orain gertatzen diren beste gauza asko oso gaizki iruditzen zaizkit, momentuko egoera ez da batere ona.



Marian Santxotena
25 urte, ikaslea

Gauza horiek jakin egin behar dira, argi dago. Egia esan ez nau asko harritu baina ez nuen uste hori inoiz publikatuko zenik.


ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETAK, ESKORIALTZA eta OÑATIRA.

**TABERNA
ZAHARRA**
Jatetxea
bazkari eta
afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

iRUDI
*Erlojudenda
Bitxitegia*
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65



Erronka berriak

Irakaskuntzan lan egiten dugunok bagenekien, aspaldi kontua da, gure ikastetxeetan zenbait aldaketa bizi beharko genukeela. Aurtengo ikasturtea amaitzeaz dugunean, dagoeneko, Bergarako Miguel Altuna eta Ipintza Institutuetako langileek datorren ikasturtean (1995-96), azkenengo urteotan egindako prestakuntza lanak zehaztu beharko ditugu, etorkizunerako benetako erronkak baitira.

Lehendabiziko erronka, dudarik gabe, LOGSE Batxilergoaren ezarpena izango da; izan ere, 16-18 urteko ikasleei zuzenduta dauden batxilergo berri hauek ikasgai, antolamendu, programazio eta metodologia berriak dakarzkigute, besteak beste.

Bigarrena eta, nere ustez, aurrekoa baino garrantzitsuagoa, zera da: gure barneko bateratze prozesoa burutzea, hau da, epe labur batetan ikastetxe bakar bat bilakatzea, ditugun baliabide materialak eta pertsonalak elkartuz eta gaur egungo Lanbide Heziketa eta Batxilergoaren arteko bereiztasunak desagertaraziz.

Bi erronka hauei ahalik eta ondoen aurre egiteko orain arteko pentsamolde asko, funtzionamendu erak, eta baita gure akatsak ere alde batera laga beharko ditugu Bergarako heziketa premiei modu onenean erantzuteko; azken finean ez bait dugu ahaztu behar haxe dela gure betebeharr nagusia.

Miguel Angel ALVAREZ



Errepasoa

Pasa den astebukaeran izandako gertakizun baten inguruan idazteko asmoa nuen baina egunkaria irakurri ondoren, ezin izan nuen bat aukeratu. Batzuk aipatzekotan... alde batetik, dakizuenez, Araba Euskaraz 95 ospatu ze Armentian (Gasteizen), "Baietz atera" lemapean. 60.000 lagun inguru bildu ziren, 5 kilometro t'erdiko ibilbidea egiteko aukera izan zutelarik. Kontzertuak, txoznak, bertsolariak, jokuak... ikusteko aukera izan zuten gerturatu ziren guztiek. Datorren urtean, aldiz, Araba Euskaraz Amurrion ospatuko da. Bestalde, ligako azken ihardunaldiak izan dituen nondik norakoak gertaera guztien gainetik izan direla uste dut. Azken momenturaino ez zen erabaki zein taldek hartuko zuen parte UEFA txapelketan. Zoritxarrez, UEFAn izateko aukera zuen euskal talde bakarrak, Athleticcek alegia, ez zuen egoera ondo aprobetxatu, Errealaren laguntza izan arren, Espanyolen aurkako partidua berdintzerakoan.

Gobernuari dagokionez, pil-pilean da, CESID, Defentsarako Informazio Zentru Nagusiak, Espainiako Armadako zerbitzu sekretuak alegia, hainbat pertsona publikori, erregeari besteak beste, grabatu dizkien deiengaitik izan duen salaketa. Dakizuenez, jadanik Perote zuzendari ohia, atxilotuta dago eta badirudi dimisio eta atxiloteta gehiago izango ditugula. Eta udal hauteskundearen inguruan, alkateak aukeratzeko plenoetan, Hernanin eta Pasaian izandako iskanbilek eman dute eta emango dute zer esanik. Esan bezala, aipatutakoez gain, joan zen astebukaeran, bai ikusteko, bai komentatzeko bai..., denetik izan genuen. Ea ba hurrengo batean zer gertatzen den.

Aitziber AZKONDO



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

BERGARA Karrozeriak


Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tfnoa: 76 27 93



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
☎ 76 14 95



Argazkian, ezkerretik eskumara: Elisabeth Mendaraz (pianoa), Maria Jesus Ugalde sopranoa, Jesus Mari Arriaran (oboea), Maria Jose Juaristi (klarinetea) eta Angel Agiriano (bonbardinoak).

Kamara musikariak

Oñatiko Kultur Sailak antolatuta, **Bergarako Musika Eskolako 5 irakasleak** kamara kontzertua eskeini zuten orain bi aste **Oñatiko Santa Ana** aretoan. Sasoi eta estilo ezberdinetako musika jo zuten, tartean klasikoa, erromantikoa eta baita gaurko musika ere. Entzuleak gustora geratu ziren emanaldiarekin eta, jasotako erantzuna ikusita, esperientzia berri hau hemendik aurrera beste leku ba-

tzutan errepikatzeko asmoa du Musika Eskolako talde honek. Eralder Bergaran ditugun...

Musiko enbaxadoreak

Aurreko astean **Begarako Udal Musika Bandako** 4 musikok Gipuzkoako udal banden ordezkartzearekin jo zuten Erroman, **Vaticanon** Aita Santuaren aurrean. Gipuzkoako musika banden selekzio hau 21 bandetako bina ordezkari osatu zuten, Bergarakoak lau ordezkari izan zituelarik: **Yolanda Cebrián eta Iokin Mendaratz klarineteak eta Iker Etxebarria eta Aritz López tronboiak**. Pedro Etxebarria Pasaiaiko Bandako zuzendariaren batutapean, besteak beste, Sarriegiren Donostiako Martxa, San Ignazioen Martxa, Emon-Emon (Feliciano Beobide), Deba (Sorozabal), Gounod-en Vaticanoko Martxa eta Agur jaunak jo zituzten gipuzkoarrek eta, kronikek diotenez, Aita Santuak Donostiako Martxaren soinuekin girotu eta eskuekin erritmoa jarraitu zuen. Enbaxadore finak gure musikoak...



Ezkerretik eskumara lokin Mendaratz, Aritz López, Iker Etxebarria eta Yolanda Cebrián Vaticano aurrean.

Amets



- **HERGO eta HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak
- **Zango erremolkeak**
- **Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak**


Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Udaletxeari buruzko liburua

Aurreko ostiralean "La Casa Consistorial de Bergara (Arquitectura e Historia)" liburuaren aurkezpena egin zen Udaletxean. Aurkezpenean, besteak beste, **Anton Arbulu** Hirigintza Diputatua, **Victoriano Gallastegi** alkatea edota **Arantzazu Oregi**, **Edorta Kortadi**, **Jesús Gil Massa** eta **Iñaki Aspiazu Iza** liburuaren egileak izan ziren. Azken hauekin batera Antxon Agirre Sorondok eta Juan Agirrek landu dute liburua. Ostiralean, alkatearen aurkezpenaren ondoren, Anton Arbuluk Udaletxean

egindako berrikuntza lanak goraiatu zituen eta honelako lanen modeloa izan daitekeela adierazi zuen. Edorta Kortadik eta Jesús Gil Massak gipuzkoar udaletxeen sorrera eta hauen balore artistikoei buruz berba egin zuten. Liburuan aurki daitezkeen artikuluetan Bergarako Udaletxearen historia eta egindako lanen prozesua jasotzen da 175 orrialdetan. Liburua Diputazioan eskuratu daiteke.

Zaharren erakusketa

Igandera arte ikusgai izango dira **Mizpirualde Erresidentzian** bertako eskulan taldeak egindako hainbat lan. 10 bat ikasle izan dira pasa den irailetik maiatzera bitartean **Ana Orgazek** zuzendutako taldean. Astero bi ordu klase izan dituzte eta orain ikasurtean zehar egindako lanen emaitza mirestu dezakegu. Lanen kalitatea ikusirik, Erresidentzia apaintzeko primeran etorriko dira, dudarik ez.



Mizpirualde egoitzako eskulan taldearen lanak ikusgai.

Zertan dihardute ba?



Xabier Aranburu 33 urteko udal museologoak parte hartuko du *El Diario Vasco* egunkariak urte amaieran argitaratuko duen "Historia de Guipuzcoa" bildumagarrian. Jose Luis Orella historiagile naparraren zuzendaritzapean, aipatutako lan horrek 45 atal izango ditu eta guztira 60 bat adituk hartuko dute parte. Bertan gipuzkoar historiaren alderdi ezberdinak aztertuko dira, geografia, historia, artea edota antropologiako gaiak jorratuz. Xabier Aranburu donostiarrak Jose Ramon Cruz Mundetekin batera "Archivos y museos de Guipúzcoa" izenburuko 13. atala landuko du.

LARREA
TABERNA
 Kale Barren, 17
 ANTZUOLA

Zumelaga
 JATETXEA
IGANDETAN ZABALIK!!
 San Antonio, 5
 BERGARA
 ☎ 76 20 21

Izaskun Igartua

Izaskun Igartuak 32 urte ditu eta 15 urte daramatza Udaletxean lanean. Igerilekuetara joan edo beste edozein kirol egin nahi baduzu, irribartsu hartuko zaitu Kirol Zerbitzuko bulegoan.

- Kanpoko pistinak ireki direla eta lanpetuta?

- Urte sasoi honetan eta urtarrilean izaten dugu lanik gehien.

- Orain txartel gehiago egiten duzue?

- Bai, bakarrik kanpoko pistinetara joaten den jendea dagoelako.

- Zu pistinara joaten al zara?

- Bakarrik udan.

- Eguzkia hartzera ala bainatzera?

- Eguzkia hartzera.

- Bainatu gorroarekin ala gabe?


- Oso gutxitan bainatzen naiz.

- Gustora egoten al zara?

- Oso. Eguzkia hartzea asko gustatzen zait.

- Jende gehiegi ez al da egoten?

- Eguraldi ona egiten duenean bai, bestela ez.



"Lehen neguan eskiatzera joaten nintzen, baina umea izan dudanetik ez dut aukera handirik. Udan pistinetara joan arren, ez dut bainatzeko ohiturarik, eguzkia hartzen egoten naiz gustora. Munduan zeharreko bidaia egitea gustatuko litzaidake"

- Jendeak trabarik ez dizu egiten?

- Denok ordu beretsuetan joaten gara, hori da arazoa.

- Bikinia ala bainu jantzia?

- Bikinia jutzen dut.

- Igeriak sorbaldak zabaltzen omen ditu...

- Baina igeri egitea oso ona da.

- Kirola lanean ala lanetik kanpo ere bai?

- Lehen eskiatzera joaten nintzen, baina orain umearekin ezin dut.

- Sofa ala kirola?

- Ez bata eta ez bestea, umearekin ezin da.

- Ordenadorea ala idazmakina?

- Ordenadorea, aurrerapenak onak dira.

- Zerk lotsatzen zaitu?

- Antzerkia edo zerbait bakarrik egiteak, taldean nahiago ditut.

- Karaokean sekula kantatu duzu?

- Ez, baina kantatzea gustatzen zait.

- Abesbatzak gustoko?

- Oso, duela 4 urte laga nuen Orfeoia eta hutsa sentitzen dut.

- Loteria tokatuz gero...

- Munduan zeharreko bidaia egingo nuke.

- Lan egiteari utziko zenioke?


- Ez, eszedentzia eskatuko nuke.

- Desio bat.

- Osasuna izatea.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24



ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuengirolan eta apartamentua Biarritzen. ☎ 76 05 37 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Azkarruntzen (merke). ☎ 81 36 58.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki DR (50 cc.) motorra salgai. ☎ 78 29 79.

Motor bat salgai. ☎ 76 07 74.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauzez).

Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. ☎ 76 03 48/ 76 06 87.

Haurrendako bi bizikleta eta **moto txiki** bat salgai. ☎ 76 15 76.

Pisua edo gela bat konpartituko nuke. ☎ 76 22 77 (gauzez).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

"Benimar" karabana oso goera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astartetik larunbatera).

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Macintosh LC III bat ia berria eta inpresora salgai. Merke. ☎ 76 39 36.

Star Trek, Star Wars, Marvel etab.en kolekzionismo figurak saldu eta erosten ditut. ☎ (93) 210 72 28.

LANA

OHO eta **BBBko** klaseak uztailen. ☎ 76 42 08 (Nere).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

OHotik **UBIra** bitarteko zientzia klaseak. Marrazketa ere bai. ☎ 76 24 31.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

Aseguru autonomoa duen neska batek abuztuan lan egingo luke. ☎ 76 47 71.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Elektrizitate, pintura, antenak jartzea... Eska aurrekontuak konpromiso bari. ☎ 76 55 01.

Zaharrak edo haurrak zainduko nituzke (arratsaldez). ☎ 76 53 18 (Susana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientziatako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

OHO eta ingeles klaseak uztailen (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**SANTOS
IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



LAGUN ARO
ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

*Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54*

*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00 Larunbatetan: 9.00-13.00
UDAKO ORDUTEGIA: Uztailaren 17tik irailaren 18ra arte.
Astelehenetik ostiralera: 9.00-13.00*

BONOFOTOA



Nere Gonzalez

Nere Gonzalezek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galderak berak asmatu baititu. Argazkian agertzen zen Osintxuko elizaren izena eta bertako santuen eguna noiz zen galdetzen genizuen eta erantzuna: **San Emeterio eta San Zeledonio martiri santuen eliza eta eguna, martxoaren 3a**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Nere Gonzalez** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da azken bi urte hauetan honelako aldaketa nabarmena izan duen baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

IPINTZAKO



futbol txapelketa

A multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA	4	2	2	0	0	5	0
2. AMILOTX	2	2	1	0	1	12	4
3. ANGIOZAR	2	2	1	0	1	2	3
4. XURRUPAK	0	1	0	0	1	1	2
5. NEKROFIKOS	0	1	0	0	1	1	12

B multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRA	2	1	1	0	0	5	0
2. SHAKTALE	2	1	1	0	0	3	0
3. CAMPEONES II	0	1	0	0	1	0	3
4. ARLOTEAK	0	1	0	0	1	0	5
5. LA JUVE	0	0	0	0	0	0	0

C multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK	6	3	3	0	0	14	3
2. ALTOS PORNOS	3	3	1	1	1	9	9
3. PAOK	2	3	1	0	2	7	9
4. OGIZUN	1	3	0	1	2	6	15



Mongatxurra



Shaktale



Campeones II



Arloteak

▼ komentarioa

Hiru multzoak hasi dira martxan eta bakoitzean hasiera-hasieratik hamaikako batzuk euren nagusitasuna ari dira azaltzen. A multzoan A Ze Flaxak bi partiduak irabazi ditu eta lehen postua berarentzat izango da. 2. posturako Amilotxek eta Angiozarrek egin beharko dute borroka. B multzoan Mongatxurra eta Shaktalek erraz irabazi diete Arloteak eta Campeones IIri. Talde honetan partidu bakarra jokatu dute eta ezin daiteke esan oraindik nortzuk izango diren faborito nagusiak. C multzoan gauzek berdin jarraitzen dute.

▼ golegileak

1. J.L. Etxaniz (Bildurbarek) 6 gol
2. Marcos Alonso (Amilotx) 5
3. Fernando Salinero (Ogizun) 4
4. Josu Arana (Bildurbarek) 4
5. Enrique Nieto (Amilotx) 3

▼ emaitzak

- Amilotx-A Ze Flaxa 0 - 3
 Angiozar-Xurruapak 2 - 1
 Shaktale-Campeones II 3 - 0
 Mongatxurra-Arloteak 5 - 0
 Altos Pornos-Ogizun 4 - 4
 Bildurbarek-Paok 3 - 2
 A Ze Flaxa-Angiozar 2 - 0
 Nekrofilikos-Amilotx 1 - 12

▼ partiduak

- ASTELEHENA 26**
 19.30: Angiozar-Nekrofilikos
 20.30: Xurruapak-A Ze Flaxa
ASTEARTEA 27
 19.30: Mongatxurra-La Juve
 20.30: Arloteak-Campeones II
ASTEAZKENA 28
 19.30: Altos Pornos-Bildurbarek
 20.30: Paok-Ogizun
OSTEGUNA 29
 19.30: Nekrofilikos-Xurruapak
 20.30: Amilotx-Angiozar
OSTIRALA 30
 19.30: La Juve-Arloteak
 20.30: Shaktale-Mongatxurra

Autokros proba jokatu da igande arratsaldean San Juanen

San Juan auzoko Jai Batzordeak igande arratsaldeko 5,30etarako II. San Juan Autokros saria antolatu du. Bertan 30 kotxe inguru izango dira eta tartean herriko 6 gidari izango dira.

Zirkuitoa Fagor lantegiaren inguruetan jarri dute eta sarrerak 300 pzt balio ditu. Diru horrekin antolatzaileek irabazleei afaritxoren bat eta diru pixka bat emateko aukera izango dute. Lasterketa tanda ezberdinetan banatuko da eta 4 edo 5 kotxe irtengo dira tanda bakoitzeke. Hor denborarik onenak lortzen dituenak finalerako sailkatuko dira

eta partehartzaileen artean emakumerik ere izango da. Kotxeei dagokienez, desguazerako izango dira lehian jardungo dutenak. Antolaketan 15 bat lagun aritu dira eta guztia prest izateko eskabadora eta guzti ibili dira zirkuitoa txukuntzen.

Lasterketaren aurrekontua 150.000 pztakoa da eta auzoko lantegiek emandako laguntzari esker atera ahal izan dute dirua. Guztira 10 trofeo izango dira banatzeko eta lasterketan zehar zer-bait hartu nahi duenak Jai batzordeak jarritako tabernan izango du aukera.



Inguruko autokros zaleak bilduko dira igandean San Juanen. ARGAZKIA: FOTO SISTEMA

Paco Santiago bergararra Realera

Paco Santiago 14 urteko gazte bergararrak datorren urtean Realean jokatu du aurreko BKEko infantiletan egindako lan onari esker. Santiago Federazioak Deba garaian antolatzen dituen entrenamenduetan aritzen da eta gol sorta bikaina lortu du. Erdian jokatzeko duen aurrelaria da eta San Martin de Agirre

ikastetxean 8. maila egin berri du. Fitxaketa honekin Realean lau bergarar ari dira jokatzeko, alde batetik talde nagusi- an Aranzabal, jubeniletan Berraondo eta kadeteetan Andueza. Bestalde BKEko arduradunak hasi dira datorren urterako preferente mailako taldea osatzen eta jakin izan dugunez, kanpoko jokalariek guz- tiek alde egingo dute.

Halaber jokalariei ez diete ordainduko eta fitxaketei dagokienez, ziurtatu dute aurrelari eta ezker hegaleko jokalariek baten fitxaketa, baina izenik ez dute aipatu. Hurrengo astean beste hiru jokalariek fitxatzea espero dute BKEko arduradunek.



Paco Santiagok gol ugari sartu ditu Bergara Kirol Elkartearen infantiletan.

Martin Egaña, AX GTI Kopako liderra

Martin Egaña joan zen asteburuan Calafaten jokatuako AX GTI Kopako txapeldun izan zen. Emaiz horri esker Egañak lider jarraitzen du. Bestalde lasterketa berean Juan Antonio Egañak 8. postua eskuratu zuen. Azkenik, Pablo Irizar Super Kopa ZX 16v lasterketan 5. postuan sailkatu zen. Honek ere bere kategoriako lehen postuan jarraitzen du 88 punturekin eta bigarrenari, Goibururi, 3 puntu ateratzen dizkio bakarrik. Hiru gidariek udan jai hartuko dute irailaren 3ra arte.

ELOSUKO PELOTA TXAPELKETA

Joan zen igandean jokatu ziren Elosuko 6. Pelota Txapelketako finalak. Gazte mailan, Orbea eta Gisasolak 22 eta 7 irabazi zieten Muguruza eta Leturiari. Beteranoetan, berriz, Agirrebeña eta Odria 22 eta 15 nagusitu ziren Igartua eta Muguruzaren aurrean.

HERRIKO IGERILARIAK ITALIAN

Bergara Igeri Elkarteko Antxon Maiztegi, Eneritz Muguruza eta Amaia Lazpiur Gipuzkoako beste igerilari batzuekin batera, Trenton izango dira astebukaera honetan jokatu den selekzio arteko igeri txapelketan. Alemaniako Charlottenburgo eta Italiako Trento izango dira gipuzkoarren arerioak.

V. SAN MARTZIAL ZIKLISMO SARIA

Igandean arratsaldeko 4.30etan hasita V. San Martzial saria jokatu da kadete mailako txirrindularientzat Bergarako kale, auzo eta inguruko herrietatik zehar. Guztira 47 Km egin beharko dituzte txirrindulariek eta helmuga arratsaldeko 4.45tarako iragarri da Ibargarai kalean.

BKEEn BATZARRA

Gaur, ostirala, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean Batzar Orokorra egingo du Bergara Kirol Elkarteak.

Lauri Askargorta

Bergarako futbol taldeari agur

Lauri Askargortak 23 urte ditu eta 10 urte zituenetik ibili da BKEko taldean atezain lanak betetzen. Hurrengo denboraldian ez jarraitzeko erabakia hartu du futbolaren gazi-gozaok probatu ondoren.

- **Aurten preferente mailan aritu zara, baina infantiletan Gipuzkoako selekzioan ere izan zinen, ez?**

- Bai, infantiletan 16 urterekin Gipuzkoako 3. amaitu genuen. Sekulako taldea genuen eta Iban Etxeberriari eta niri selekzioara deitu ziguten. Frogak pasatu ondoren, orain Athleticeko atezaina den Valenciarekin izan nintzen selekzioan. Espainiako mailako txapelketako finalerako sailkatu ginen eta Andaluziaren aurka galdu genuen. Jokatu ez arren oso esperientzia polita izan zen.

- **Jubeniletatik preferente mailara salto egitea ez al zen oso gogorra izan?**

- Salto handiegia izan zen. Hurrengo denboraldian preferentera igo ninduten eta diferentzia somatu nuen.

- **Hortik aurrera ez duzu aukera asko izan jokatzeke?**

- Igo nintzenez Lezaman ibili nintzen entrenatzen hiru urtetan. As-tean zehar han entrenatzen nuen eta asteburuan preferentekoarekin jokatzen nuen. Lezaman Iribarrekin entrenatzen nuen eta Kike, Larraza-

bal, Tabuenka, Galdames, Cuellar eta Gracia-rekin batera egon nintzen. Azken urtean froga bat egin nuen eta altura faltagatik ez ninduten hartu. Lezaman fisikoa asko landu genuen eta esperientzia oso ona izan zen.


- **Preferentean zenbat urte eman dituzu?**

- 6 urte inguru eman ditut. Etapa ezberdinak izan ditut urte hauetan. Hasieran jokatzen nuen arren, gero entrenatzaile aldaketak zirela eta gu-

txiago jokatu izan dut.

- **Aurtengo denboraldian jokatzeke aukera izan duzu eta zer-gatik laga behar duzu futbola?**

- Beste atezainak baino gehiago jokatu dut, baina berak jokatu ezin zuenean jarri nautela uste dut, entrenatzaileak kontrakoa esan arren. Gainera ez dut batere ondo pasatu, ez naiz oso gustora ibili, taldean ez baitugu giro onik lortu eta oraingoz, lagatzea erabaki dut.



"Lezaman Iribarrekin entrenatu nuen".

"Aurten ez naiz gustora ibili, taldean ez baita giro onik izan eta lagatzea erabaki dut"



Izarra txapeldun

Bergarako ekipoak historixan zihar, izen desberdiñak euki ditu. Lehenengo Or-Konpon, honen ostian Izarra eta gerora "Club Deportivo Bergara" sortu zan. Erretratuko ekipoa Izarra da eta 1949-50 jardunaldixan Molins kopako txapeldun izan zan, Hernanin kontra final bi jokatu eta gero. Lehenengo finala Tolosan izan zan 1950.eko martixan 26xan eta hemen berdindu eñ zebenez, aprillañ 2xan, Beasaingo futbol-zelaixan, Senperen, Bergarak herrira txapela ekartzia lortu zeban. Kapitan lanetan, Ignacio Balzategik jardun zeban.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Patxi Olabarria "Bolubarri", Bitoriano Larrañaga, Inozentzio Muniategi, Iñaki Arrieta, Jose M. Larrañaga "Xapa", Ramon Etxaniz.

Makurtuta: Ignacio Balzategi, Jose Antonio Moñux, Dabid Solaun, Jose Luis Osinalde, Iñaki Sotil, Serafin Perez.

Felipe Iñarra

Argazkia: Joakin Balzategi

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

BOLINTXO Okindegia

■ OKINDEGIA

■ TXARKUTERIA

■ GOZOTEGIA

OHARRA:
Igande honetatik
aurrera ogiaren turnoa
San Martin plazan izan
beharrean Zurradero
2an izango da

Gaurtik, ostirala 23, aurre-
ra okindegi berria **zabalik**

Zurradero 2an. Okindegia,
txarkuteria eta gozotegia
aurkituko dituzu bertan.


Zatoz Bolintxo Okindegi
berrira, atsegin haundiz
hartuko zaitugu.

BERGARA
(Denda)
76 01 26

SAN JUAN
(Bulegoa)
76 16 93

EIBAR
10 40 66

ARRASATE
79 63 42



TORREALDAY

aholkulari-kontsultoreak

Bidekurutzeta 6, 2 Ezkerra

Tfnoa eta Faxe: 76 53 80

- ARLO FISKALA
- KONTABILITATEA
- FRANKIZIAK
- GIZA BALIABIDEAK
- ARLO LABORALA
- ASEGURUAK
- AUDITORIAK

1979tik enpresa txiki eta erdi mailako enpresen zerbitzura profesionalen
osaturako taldea, orain Bergaran

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industrial.
Amilaga, 10 behe.
BERGARA

JAKINA

Telefonoa: 76 01
Faxa: 76 01